



BOROBILEAN!

0. AZALA

Azalean, beti bezala, hitz esanguratsu eta interesgarri bat agertzen zaigu: “Borobilean”. Zer deritzozue? Zer adierazten du zuentzat "borobil" hitzak? Zuen hurrei ere galdera horiek egingo dizkiozue.

Eta jarraian, orritxo batean, idatziko duzue zerekin lotzen duzuen "borobil" hitza zuen egunerokoan, zerrendatxo bat eginez. Eman buelta batzuk buruari! Eta, nola ez, lagundu zuen hurrei!

Aurreko jarduera amaitzean, egin galdera hau hurrei: zuen ustez, zeren inguruan hitz egingo dute gure lagunek?

2. AURKIBIDEA

Aurkibidearen atalean eskuinaldean ageri den testuan zentratuko gara. Atal honetan, zera egin dezakezue:

- Lehenengo, testua irakurri, eta bertan adierazten duena ondo ulertzen saiatu.
- Testua irakurri haurrari.
- Irakurritakoa ulertu duen ala ez galdetu.
- Behin ulertu duela ziurtaturik, azaldu diozuna bere hitzetan azaltzen saiatzeko eskatu.



BOROBILEAN!

- Amaitzean, esan bere ahotsa entzun nahi duzula, eta eskatu testua berak irakurtzeko zuri. Entzun iezaiozu adi, noizean behin feedback positiboa eskainiz.

3. LAGUN

Irakur ezazue komikia lasai-lasai, eta, jarraian, asmakizunekin jolastuko gara. Komikian ageri diren hitz edo irudietan oinarriturik, sor itzazue asmakizun batzuk. Hona hemen adibide bat:

- Kolore biziko eta forma borobileko gauza baten bila gabilta; komikiaren zati guztietan agertzen da ia.

Jolas honek komikiaren errepaso bat egiten lagunduko du, modu dibertigarrian.

4. PUPU ETA LORE

Gure laguntxoek komikia irakurtzeko, esan haurrari zuk irakurriko duzula komikia! Baina adi! Izan ere, hark egiteko garrantzitsu bat izango baitu: zuk irakurri ahala, haurra zure irakurketa kontrolatzen ariko da. Alegia, ondoirakurtzen duzun ala ez ziurtatu beharko du.

Zerbait gaizki irakurtzen duzun bakoitzean, "STOP!" esan beharko du!



BOROBILEAN!

Horretarako, haurra ere irakurtzen aritu beharko du, noski! Irakurtzen ari dela ziurtatuko dugu baldin eta zuk gaizki irakurtzen duzunean oker egin duzula esaten badizu! Beraz, irakurri, baina okerrak eginez tarteka! Ea nola irteten den irakurketa jolasa!

5. TIRITATXO

Oraingo honetan, emozioak lantzeko aukera eskaintzen digu Tiritatxok. Gure proposamena hauxe izango da:

- Lehenik eta behin, Tiritatxok zer dioten irakurtzen hasi aurretik, galderatxo bat egingo diogu: badakizue zer diren emozioak?
- Gero, emozio bakoitzaren azpian zer dagoen irakurriko dugu, eta, jarraian, zuen hurrek asmatu egin beharko dute zein emozio mota den.
- Horrez gain, guztiok batera irakurriko dituzue Tiritatxok emozioen inguruan jarri digun azalpena.
- Amaitzeko, jolas txiki bat egingo dugu. Aurpegiarekin, hainbat emozio adieraziko ditugu, eta besteok asmatu egin beharko dute zein emozio adierazten ari garen, ados?

6. MARTINBERTSO

Animatzen zarete Martin Bertsoren komikian oinarriturik ipuin bat sortzera? Irakur ezazue komikia nahi duzuen bezala, elkarrekin, bakarrik...

Gero, irudimena landuz, ipuin bat sortuko duzue. Haurrari baliagarri egingo zaio irudietan erreparatzea ipuina sortzeko garaian.



BOROBILEAN!

7. BARATZE NATURALA. KARAKOLA ETA BAREA

Hau da, hau, informazio festa! Segidan, orri zuritxo bat hartuko dugu, baratze urbanoan agertzen zaiguna txukun-txukun idatzita jarri ahal izateko:

- Lehenik eta behin, utzi haurrari nahi duen bezala irakurtzen.
- Gero, orri zurian izenburua idatzi, eta koloreztatuko dugu.
- Ondoren, irakurri dugun horretatik zer ulertu dugun idatziko dugu.
- Amaitzeko, gure inguruko norbaiti azalduko diogu orrian zer idatzi dugun.

8. HAUR KANTAK

Jolastu gaitezen apur bat letrekin:

- Galdetu iezaiozu haurrari ea jolasteko prest dagoen. Horrela, haurraren irrika piztuko dugu.
- Jolasa letrak aldatzean datza, hau da, irakurtzen ari zareten bitartean, zenbait letra beste letra batekin aldatu beharko duzue, eta entzuten ari dena aldaketa horretaz konturatu beharko du. Beraz, elkarrekin irakurketa konpartitu bat beharko duzue.



BOROBILEAN!

9. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Jarraian, detektibe lanak egiteko parada eskainiko dizuegu:

- Lehenik eta behin, irakurri komikia.
- Orri zuri batean, detektibe lanak eginez, protagonistaren izena jarriko duzue, inortxori ere erakutsi gabe.
- Amaitzeko, "bat, bi, hiru" esan, eta bakoitzak zer idatzi duen erakutsi beharko du.

Usuario de Microsoft Of..., 18/12/17 10:03

Comentario: Horri zuri batean detektibe lanak burutuz, protagonistaren izena jarriko duzuen inortxori erakutsi gabe

10. FILOSOFO TXIKIAK

Irakurtzen hasi aurretik, zera egin dezakezue:

Esan haurrari txoriaren inguruko informazioa emango digutela testu hauetan. Baina galdetu iezaiozu, hasi aurretik, txoriaren argazkia ikusita ea zer uste duen esango digutela testutxoetan. Ea zer esaten dizun.

Jolas hori egitean, zuk zeuk irakur iezazkiozu hasierako testutxoak, eta saiatu, gorputz keinuekin, testua irakurri eta interpretatzen.

Amaierako testuak haurrak irakur ditzala.

Amaitzean, irakurritakoan jaso duzuen informazioarekin, egin txoriaren marrazkitxoa.



BOROBILEAN!

11. IRRIA

Testu hau zuk zeuk irakurri haurrari. Bertan, aldizkariaren oinarria den zerbait islatzen da; beraz, gure proposamena da zuk zeuk irakurtzea haurrari.

Amaitzean, solastatu irakurzaletasunak duen garrantziari buruz. Hitz egiozu irakurtzeak ematen duen eta etorkizunean emango dion gozamenari buruz.

Bukatzen duzuenean, galdetu haurrari ea gogoko duen irakurtzea, zer irakurgai gustatzen zaion gehien, eta abar. Hitz egin horren inguruan, eta pasatu elkarrekin momentu goxo eta polit bat.

12. FILOSOFO TXIKIAK

Atal honetan, proposatu haurrari testuaren amaieratik hastea: *Eta zuk, filosofo txiki horrek, maite duzu lagunekin dibertitzea?* Amaierako testu horrekin hasiko zarete.

Galdera horri erantzunez, eta horren inguruan hitz egin ostean, animatu haurra komikitxoak irakurtzera.

Amaitzean, hitz egin irakurri duzuen horren inguruan, eta zuetariko bakoitzak atera dezala bertatik ideia garrantzitsu bat.



BOROBILEAN!

13. TXOKOTXIKI KUTTUNA

Testutxo hauek irakurtzeko, zera proposatzen dizuegu: lehenik eta behin, irakur dezala haurrak izenburua, eta, gero, zu zeu, izenburu horretatik abiatuz, saiatu ondorioztatzen zer gai jorratuko diren testuetan.

Amaitzean, gauza bera egin beharko duzue testutxo bakoitzarekin. Alegia, esan haurrari testu bakoitzaren izenburua irakurri beharko duela eta, izenburua zein den jakinda, testuaren muina asmatu beharko duela.

14. MARIKALANBRE

Gure lagun Marikalanbreren atala irakurtzeko, hauxe proposatzen dizuegu: galdetu haurrari ea badakien energia berriztagarriak zer diren. Komentatu energia mota horien inguruan jardungo dutela gure laguntxoek, eta ea irakurri nahi duen oraingo honetan zer egin duten.

Irakurtzera animatzen bada, irakurri bion artean, eta, amaitzean, testuan agertu zaizkizuen horietatik aukeratu energia berriztagarri bat, eta jarri martxan! Kontatuko diguzue nola joan zaizuen.

Usuario de Microsoft Of..., 18/12/17 10:08

Comentario: Irakurtzera animatzen bada, irakurri bion artean, eta amaitzean, irakurri dituzuen horietatik, energia berriztagarri bat eta jarri martxan!



BOROBILEAN!

15. LARGABISTA

Irakur dezala haurrak komikia, eta, amaitzean (seguruenik, ez du jakingo "fracking"-a zer den), azal iezaiozu zure hitzekin zeri deritzon "fracking"-a, edo Interneten begiratzuz (bideoak, irudiak...).

Amaitzean, komikia antzez dezakezue. Bat Largabista izango da, eta bestea, berriz, txakurra. Komiki motza da; beraz, erraz antzeztuko duzue. Ondo pasa!

16. MARIMATRAKAK

Noa eta Lea marimatraken istorioa irakurtzeko, jolas hau proposatzen dizuegu:

Aukeratu nork irakurriko duen testutxoa, eta esan irakurtzen ari denak tonua igo beharko duela, eta arnasa hartzeko eten txiki bat egin, Noa eta Lea izenak ateratzen diren bakoitzean. Tonua esajeratu beharko duzue; horrela, umore puntua emango diozue jolasari. Gozatul!

17. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Atal hau irakurtzeko, lehenik eta behin, irakur iezaiozu testutxo urdina haurrari, eta hitz egin testuaren gaiaren inguruan: elkar laguntzeak bidea ematen duela gizarte osasuntsu eta zoriontsuago bat sortzeko, behar gehien dutenei lagundu egin behar zaiela, eta abar.

Gero, esaiozu laguntza behar duen pertsona bat ageri dela komikian, arazo baten ondorioz ezintasun bat duela... Irakurtzera animatzen bada, proposatu bion artean irakurtzea.



BOROBILEAN!

Amaitzean, irakurri eskuinaldeko testua. Bizipoza elkarteari buruz hitz egiten du.
Galdetu ea nola irakurri nahi lukeen, eta gozatu bion artean testua.